



JAKINARAZPENA

Agiri honen bidez, Alkatezaren **2021eko azaroaren 22ko** Dekretuaren bidez honelako erabakia hartu dela jakinarazten dizut:

Gaia: Tabernen egun bereziak izendatu, ixteko ordutegia 2 ordutan luzatzeko.

Bizkaiko Ostalaritza Elkartearen gerentziak eskaria aurkeztu du, Jolas Jardueren ordutegia arautzen duen Eusko Jaurlaritzako 17/2019ko Dekretuaren 37. artikulua dioena aipatuz, Udalei ematen baitio gaitasuna, egun jakin batzuk EGUN BEREZItzat hartzeko eta, ondorioz, jardueren ixteko ordutegia beste bi ordutan luzatu ahal izateko. Hortaz, egun guztiak egun berezitzat hartzeko eskaria egin du.

Honen aurrean,

ERABAKI DUT:

1. Interesatuari agertzea, Eusko Jaurlaritzaren dekretuak ezarten duenari jarraituz, Lekeitioko Udalak jadanik ondoko egunak dituela EGUN BEREZItzat hartuta, beti ere **Covid19ak eraginda osasun egoera edo inguruabarrak aldatzen ez diren bitartean.**
 - a. San Antolinak: irailaren 1etik 8ra, biak barne. 8 EGUN
 - b. Aste Santuak: ostegunetik astelehenera arte, biak barne. 5 EGUN
 - c. Inauteriak: ostegunetik asteartera, biak barne. 6 EGUN
 - d. Abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra arte, biak barne. 21 EGUN
2. Abenduaren 3tik 14ra arteko eskaria ez baimentzea, Lekeitioko tabernariak ez dutelako inolako proposamenik/eskaririk aurkeztu udalean.
3. Erabaki honen berri ematea interesatuari, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari eta, baita, herriko jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueretako titularren ordezkariari.

Dekretu honen erabakia jakinarazten dizut, dagozkion ondorioak izan ditzan. Erabakia behin betikoa da bide administratiboan. Halere, jakinarazpena hartzen duzuetik hasi eta bi hilabeteren barruan, erabaki horren kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu administrazioarekiko auzien epaitegian edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, horrela ezartzen du-eta 29/1998 Legearen (uztailaren 13koa, administrazioaren auziak arautzen dituen) 8 eta 46. artikuluek. Lege hori bat dator 39/2015 Legearekin (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena). Edonola ere, zuk nahi izanez gero, **berraztertze**ko errekurtsua aurkez diezaiokezu erabakia hartu duen organoari, jakinarazpena hartzen duzuetik hasi eta hilabetearen barruan.

Hori guztia bat dator gorago aipaturiko 39/2015 Legearen 112, 123 eta 124 artikuluek ezarritakoarekin. Dena dela, beste edonolako ekintza edo errekurtsua aurkez dezakezu, zure eskubideak hobeto defendatzen direla uste baduzu.

Lekeition, 2021eko azaroaren 22an



Izp.: Jone Goitia Goienetxea
Lekeitioko Udal Idazkaria